


BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



MANUEL MOROS. JEAN PENEFF FUNTSA. COLLECTION MEMORIAL D'ARGELES SUR MER.

ARGELES SUR MER KONTZENTRAZIO-ESPARRUKO IZUGARRIKERIA

1939ko otsailean ehunka euskaldunek Kataluniako muga zeharkatu zuten, frankis-
tengandik eta errepresiotik ihesi. Kataluniatik ihes egin zuten euskal errefuxiatu
gehienak Argeles sur Mer kontzentrazio-esparruan sartu zituzten muga igarotzean,
eta beste batzuk, berriz, Saint-Cyprien eremuan. Argeles sur Mer kontzentrazio-es-
parrua izan zen euskal komunitate antolatu bat izan zuen lehena, «Gernika berri»
izeneko eremu bat mugatu zuten, eta bertan, 6.500 euskal errefuxiatu inguru sartu
zituztela kalkulatu da. Hondartza baten gainean eraiki zuten, eta ez zuten edate-
ko urik. Esparrua bisitatu zuen Frantziako batzorde sozialista batek egindako txos-
ten baten arabera, sei hilabete eta lau urte bitarteko haurren % 60 hil egin zen,
gehienak gosez eta disenteriarekin. Helduen artean gaixotasun ohikoenak disente-

ria, pneumonia, sukar tifoideak, tuberkulosia, eskorbutoa eta legenarra izan ziren.
Argeles sur Mer kontzentrazio-esparruko izugarrikeria erakusten duen 1939ko ar-
gazki hau, non barrakoiak ikusten diren, baita emakumeak eta haurrak ere alanbre-
hesi baten atzean, Manuel Moros (1898-1975) margolari eta argazkilariak egin zuen,
jatorri kolonbiarrekoa zenak eta Rossellon bizi zenak. Manuel Morosek errefuxiatuen
etorrerari eta horiek kontzentrazio-esparruetan barneratzeari buruzko dokumentu
grafiko garrantzitsua utzi zuen. II. Mundu Gerran, naziengandik ihes egin behar izan
zuen eta bere Roselloko etxea utzi, non burdinazko kutxa batean lurperatu zituen
bere negatiboak. Urte batzuk geroago, 10 urteko haur batek lurpetik atera eta uste-
kabea aurkitu zituen.